Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko urriaren 13a, asteartea — 195 — Martes, a 13 de octubre de 2020

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ASTIGARRAGAKO UDALA

**Kultura eta Euskara**

*Iragarkia*

Astigarragako Tokiko Gobernu Batzarrak irailaren 29an bildurik ebatzi du haur eskoletako erabiltzaileentzako dirulaguntzak emateko oinarriak ontzat eman eta laguntzen deialdi publikoa egitea.

*Lehena. Deialdiaren xedea.*

Deialdi honen xedea da 2019-20 ikasturtean haur eskola batean ibilitako haurren familiei dirulaguntzak ematea da.

*Bigarrena. Onuradunak.*

Dirulaguntza hauek jaso ahal izango dituzte 2019-20 ikasturtean Haurreskolak partzuergoko haur eskolaren batean matrikulatutako Astigarragako haurren familia edo legezko ordezkariek.

*Hirugarrena. Aurrekontuaren kreditua.*

1. Astigarragako Udalaren 2020ko aurrekontuan, deialdi honen xede den diru-laguntzetarako ondoko kopurua dago jasota:

1 0600.480.01.323.10 2020 kontu sailean 2.000 €.

Eskaerei dagokien zenbatekoa aurrekontuan jasotako kopurua baino handiagoa balitz, kontu saileko kopurua handitu ahal izango litzateke horretarako aukerarik balego. Hala ez balitz ordea, aurreikusitako kopurua eskatzaileei onartutakoaren arabera hainbanatuko litzateke.

*Laugarrena. Dirulaguntzak eskatzeko baldintzak.*

— Familia unitatea gutxienez 2019-20 ikasturtearen hasieraz geroztik Astigarragan erroldatuta egotea eta Udalarekin zorrik ez izatea.

— Haurra 2019-20 ikasturtean Haurreskolak partzuergoko haur eskolaren batean matrikulatuta egon izana.

— 2019-20 ikasturtean haurra familia ugariko edo guraso bakarreko familiako kide izatea edo ikasturte horretan familia unitate bereko bi haur edo gehiago Haurreskolak partzuergoko haur eskola batean matrikulatuta egon izana.

—2019-20 ikasturtean haur eskolari eta bertako guraso-elkarteari dagozkion ordainketa guztiak eginak izatea.

—2019-20 ikasturtean xede bererako beste dirulaguntzarik eskatu edo jaso ez izana.

*Bosgarrena. Aurkeztu beharreko agiriak.*

—Eskaera-orria behar bezala beteta eta eskatzailearen nortasun agiriaren kopia.

—Haurreskolak partzuergoaren eta dagokion haur eskolako guraso-elkartearen agiriak 2019-20 ikasturteko ordainketa guztiak eginak daudela ziurtatzeko eta ordaindutako kopurua zehaztuta.

— Hala dagokionean, haur eskolaren agiria 2019-20 ikasturtean familia-unitate bereko bi haur edo gehiago haur eskolan ibili direla ziurtatzeko.

## AYUNTAMIENTO DE ASTIGARRAGA

**Cultura y Euskera**

*Anuncio*

La Comisión de Gobierno del Ayuntamiento de Astigarraga reunida el 29 de septiembre aprobó las bases para la convocatoria pública de subvenciones para los usuarios-as de escuelas infantiles.

*Primera. Objeto de la convocatoria.*

El objeto de ésta es conceder subvenciones a las familias de niños y niñas que han asistido a una escuela infantil durante el curso 2019-20.

*Segunda. Personas beneficiarias.*

Las familias o representantes legales de los niños y niñas de Astigarraga que se hayan matriculado durante el curso 2019-20 en alguna escuela infantil del consorcio Haurreskolak.

*Tercera. Crédito presupuestario.*

1. El Ayuntamiento de Astigarraga tiene habilitada en su presupuesto de 2020, con destino a estas subvenciones la siguiente partida presupuestaria:

2.000 € euros en la partida 1 0600.480.01.323.10 2020.

Si la cuantía de las solicitudes fuese mayor que la previsión presupuestaria dicha cantidad podría ser incrementada si la disponibilidad presupuestaria lo permitiese. En caso contrario, la cantidad prevista se repartiría proporcionalmente según la cantidad otorgada a cada solicitante.

*Cuarta. Requisitos para solicitar las subvenciones.*

— La unidad familiar debe estar empadronada en Astigarraga por lo menos desde el inicio del curso 2019-20 y no tener deudas pendientes con el Ayuntamiento.

— El niño o la niña ha de haber estado matriculado-a en una escuela del consorcio Haurreskolak durante el curso 2019-20.

—Durante el curso 2019-20 el niño o la niña tiene que pertenecer a una familia numerosa, monoparental o haberse matriculado en una escuela infantil del consorcio Haurreskolak dos o más miembros de la unidad familiar.

—Estar al corriente en el pago de todas las obligaciones del curso 2019-20 de la escuela infantil.

—No solicitar ni percibir ninguna otra subvención destinada al mismo fin para el curso 2019-20.

*Quinta. Documentación a presentar.*

—Instancia de solicitud debidamente cumplimentada y copia del DNI de la persona solicitante.

—Documentos del Consorcio Haurreskolak y de la asociación de padres y madres que acrediten haber efectuado todos los pagos del curso 2019-20 detallando la cantidad abonada.

—Cuando corresponda, documento del Consorcio Haurreskolak que acredite que durante 2019-20 han estado matriculados 2 o más niños-as de la misma unidad familiar.

EK\CV GAO-I-2020-05070

— Familia-liburuaren kopia.

— Beste dirulaguntzei buruzko erantzukizunpeko aitorpena.

Eskatzaileren batek adierazten badu oinarri hauetan eskatzen den agiriren bat Astigarragako Udalaren esku dagoela, eta Udalak hori hala dela baldin badaki, eskatzaileak ez du agiri hori aurkeztu beharrik izango.

Edonola ere, adierazitako dokumentazioaz gain, Udalak nahi beste informazio eskatu ahal izango die eskatzaileei baldintzak behar bezala betetzen direla ziurtatzeko.

*Seigarrena. Eskaerak aurkezteko epeak eta tokia.*

Eskaerak 2020ko urriaren 30erako aurkeztu behar dira Astigarragako Udaleko Erregistro Nagusian. Halaber, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 8.4 artikuluak aipatzen dituen lekuetan ere aurkez daitezke.

Baldin eta eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe balego edo oinarri hauetako baldintzak beteko ez balitu, 10 lan-eguneko epean forma-akatsak zuzentzeko edo dokumentazioa osatzeko eskatuko zaio. Gainera, ohartaraziko zaio hala egin ezean, eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dela, eta, horrenbestez, eskaera besterik gabe artxibatu egingo da.

*Zazpigarrena. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa.*

Dirulaguntzen eskabideei buruzko erabakia alkatetzako dekretu bidez hartuko da eta ondoko kopuruak emango dira:

—Haur-eskolan bi haur edo gehiago matrikulatuta izan dituen familien kasuan, bigarren haurrak Haurreskolak partzuergoari eta haur-eskolako guraso-elkarteari 2019-20 ikasturtean ordaindutakoaren % 50eko laguntza. Hirugarren edo haur gehiagoren kasuan, horiek ordaindutakoaren % 100a emango zaie.

— Familia ugarien eta guraso bakarrekoen kasuan, Haurreskolak partzuergoari eta haur-eskolako guraso elkarteari 2019-20 ikasturtean ordaindutakoaren % 25eko laguntza izango dute.

Aipatu bi dirulaguntzak bateraezinak dira eta eskatzaileak onura handiena ekarriko diona aukeratu ahal izango du. Dirulaguntza ezingo da inolaz ere gastua baino handiagoa izan.

*Zortzigarrena. Klausula gehigarriak.*

Oinarri hauen interpretazioari buruz sor daitekeen edozein zalantza udalak erabakiko du.

Astigarraga, 2020ko irailaren 29a.—Alkatea.

(5070)

— Copia del Libro de Familia.

— Declaración responsable sobre otras ayudas.

En el caso de que la persona solicitante manifieste que alguno de los documentos exigidos se encuentra en poder del Ayuntamiento de Astigarraga, y éste tenga constancia de ello, dicha persona no estará obligada a la presentación de dicho documento.

El Ayuntamiento podrá solicitar, además de la documentación señalada, cuanta información considere necesaria para verificar que se cumplen los requisitos.

*Sexta. Plazos y lugar de presentación de las solicitudes.*

Las solicitudes deberán presentarse en el Registro General del Ayuntamiento de Astigarraga para el 30 de octubre de 2020 o en los lugares señalados en el 8.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En el caso de que la documentación aportada por la persona solicitante estuviera incompleta, o no cumpliera los requisitos establecidos en éstas bases, se le concederá un plazo de 10 días hábiles para subsanar los defectos de forma detectados o completar la documentación. Asimismo, se le apercibirá que, en caso de incumplimiento, se entenderá que desiste de su solicitud, por lo que ésta se archivará sin más trámite.

*Séptima. Importe de la subvención y forma de pago.*

Las solicitudes de subvención se resolverán por decreto de alcaldía y se concederán las siguientes cantidades:

— En el caso de matriculaciones de dos o más niños-as, la subvención será del 50 % de la cantidad abonada por el segundo niño o niña al Consorcio Haurreskolak y a la asociación de padres y madres de la escuela infantil. A partir del tercer niño-a y siguientes, se subvencionará el 100 % de las cantidades abonadas por ellos o ellas.

— En el caso de las familias numerosas y monoparentales, la subvención será del 25 % de la cantidad abonada al Consorcio Haurreskolak y a la asociación de padres y madres de la escuela infantil.

Ambas subvenciones son incompatibles, por lo que la persona solicitante podrá optar por la más beneficiosa, pero la ayuda concedida no podrá superar de ninguna manera el importe del gasto.

*Octava. Cláusulas adicionales.*

Cualquier duda que pueda surgir en la interpretación de las presentes bases será resuelta por el Ayuntamiento.

Astigarraga, a 29 de septiembre de 2020.—El alcalde.

(5070)


EK\CV GAO-I-2020-05070